

Gure etekina, mugikorrek saldu ostean lortuko dugu, izan ere, enpresa bakoitzak saldutako mugikor kopuruaren baitan diru kantitate bat ordaindu beharko digu.

Hasiera batean enpresei ordaindu egin beharko diegunez diru-iturri bat beharko dugu, horretarako banku batera joan beharko dugula aurreikusten dugu mailegu baten eskean. Banku desberdinetan informazioa eskatu eta egokiena iruditzen zaiguna izango da gure hornitzaile nagusia. Ezinbestekoa izango da guretzat proiektua martxan jartzeko laguntza hori, horretarako Kutxabank, Laboral Kutxa eta beste hainbat bankutan ahaleginduko gara. Enpresa bakoitzari 5000€ ordainduko dizkiogu gure ideia euren mugikorretan erabil dezaten. Polycrown Solar izango da plakak egingo dituen enpresa, eta beraiek arduratuko dira beharrezko plaka kantitatea enpresa bakoitzari bidaltzeaz.

